

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Prebentzioan
eragiteko
apustu irmoa**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Ongizate emozionala lantzeko zerbitzuak,
denen eskura3

Familiak orientatzeko zerbitzu berria6

Eraberrituta sexu, genero eta bikote
aholkularitza zerbitzua7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Ongizate emozionala lantzeko zerbitzuak, denen eskura

ONGIZATE EMOZIONALA, LEHEN LERRORA

Herritarren ongizate emozionala hobetzea lehenetsuen artean du Azpeitiko Udalak, eta bi zerbitzu berri eskainiko ditu. Alde batetik, psikologo zerbitzua, 18 urtetik gorakoentzat. Gizarte zerbitzuen eraikinean dago bulegoa, eta dagoeneko hasi da herritarrei arreta ematen. Bestetik, familiak orientatzeko zerbitzua, 18 urtetik beherakoei eta haien senideei bideratuta. Urte hasieran zabalduko dute, eta Gaztelekuan eskainiko du arreta.

Halako zerbitzuak dituen herri bakarrenetakoa da Azpeitia, eta Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak azaldu duenez, prebentzioaren arloan eragitea dute helburu. “Bizitzako unerik batean, guztiok izaten dugu sostengu baten edo

norbaiten laguntzaren beharra. Askotan, laguntza hori ezin du eman lagun batek edo senide batek, baina bai profesional batek”. Zehaztu du, laguntza profesional horren bidez, herritarrak egoera okerrago batera iristea saihestu nahi dela.

Goenagaren arabera, gizarteak ongizate emozionalari gero eta garrantzi gehiago ematen dio, baina, aldi berean, herritarren artean gero eta gabezia handiagoak igartzen dira arlo horretan. Hain zuzen ere, udaleko hainbat sailetan (gizarte zerbitzuak, anbulatorioa, ikastetxeak, Gaztelekua...) detektatu dute egoera emozionala lantzeko premia, besteak beste, ikusten baitute ugartu egin direla antsietate, larritasun, bakardade eta bestelako

egoera batzuk. "Arazo asko arlo emozionala ez lantzetik datoz. Horregatik da garrantzitsua prebentzio lana egitea, alegia, min emozionala sendatzea eta sendatzeko bitartekoak jartzea", esan du Goenagak.

COVID 19-aren pandemiak, gainera, ez duela betere lagundu nabarmendu du. "Gizarte indibidualista batean bizi gara, eta gure minak gero eta gutxiago partekatzen ditugu. Pandemiak eragindako bakartze edo isolamenduak are gehiago okertu ditu egoera emozionalari lotutako arazoak".

PSIKOLOGO ZERBITZUA

Min emozionalari lotutako egoerei erantzun ahal izateko, udalak urrian jarri zuen martxan 18 urtetik gorakoei bideratutako psikologo zerbitzua, Matxinada kaleko gizarte zerbitzuen eraikinean.

"Hasiera-hasieratik egon gara herriko anbulatorioarekin harremanetan, eta hark eskaintzen duen zerbitzuaren osagarri bat izango da psikologo zerbitzua. Anbulatorioko profesionalak ere proiektuaren parte dira", zehaztu du Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak. Luis Legorburu psikologoak ematen du arreta.

Udalak finantzatuko du zerbitzua, baina balorazioak eta abarrak elkarrekin egingo dituzte psikologoak berak, gizarte zerbitzuetako langileek eta anbulatoriokoek. Izan ere, erabiltzaileei arreta integrala eta diziplina anitzekoa eskaintzea da helburua. "Azken batean, denok ari gara herritarrei arreta ematen: udalak, gizarte zerbitzuen bidez, arazo sozialak lantzen ditu; anbulatorioak, berriz, osasun arloa. Baina min eta osasun arazo asko arazo sozialetatik eratorritakoak dira, alde emozionalarekin lotura handia baitute. Horregatik, beharrezko ikusten dugu elkarlan hori".



PSIKOLOGO ZERBITZUAREN GAKOAK

• Norentzat

18 urtetik gorako herritarrei dago bideratuta. Prebentzioaren arloan kokatzen da, hau da, ez da dagoeneko buru osasuneko patologia diagnostikatuta dituztenenentzako zerbitzu bat.

• Funtzionamendua

Zerbitzua erabili nahi duenak anbulatoriora edo gizarte zerbitzuetara jo behar du, eta gizarte langile batek baloratuko du eskaera.

• Saiokak


Hasiera batean, sei saioko asistentzia planteatuko zaie erabiltzaileei. Ondoezaren arazoak aztertu, egoera eragin duten faktoreak bilatu eta norberaren egunerokoan zer eragin duten aztertzeko ahalegina egingo da psikologoarekin, ondoren egoerari buelta emateko estrategiak markatzeko.

• Ordutegiak

Astelehenetik ostiralera egongo da psikologoaren kontsulta, gizarte zerbitzuen bulegoan. Orduz kanpo ere eratzungo zaie larrialdi kasuei.

Luis Legorburu
psikologoak eskaintzen
du zerbitzua





Familiak orientatzeko zerbitzu berria, urte hasieran

Nerabezaroa ulertzeko ahalegin berezia egin zuen iaz Azpeitiko Udalak. Hainbat eragilerekin bildu eta zenbait jarduera egin ostean, herrian bertan arreta iraunkorra emango zuen gune bat sortzeko beharra ikusi zen; horri erantzun asmoz, udalak familiak orientatzeko zerbitzua jarriko du martxan 2024 hasieran. Gaztelekuan egongo da bulegoa, eta psikologo batek emango du arreta.

Hain zuzen ere, COVID-19aren pandemiaren ostean, nerabeak “mugituta” igartzen zituzten Gaztelekuko hezitzaileek, eta ikastetxeekin, gizarte zerbitzuekin eta Udaltzaingoarekin jarri ziren harremanetan, haiek ere sentipen bera ote zuten jakiteko asmoz. Guztiek antzeko irudipena zutela ikusita, gurasoengana jo zuten, haiek zer zuten esateko entzun nahian. Kezka agertu zuten haiek ere.

Hala, etxean neraberak zituztenei bideratutako guraso eskola batzuk sortzea izan zen hurrengo pausoa. Aurtengo apirilean eta maiatzean, hainbat gairi buruzko hitzaldiak antolatu zituzten, seme-alabekiko komunikazioa, sare sozialak, sustantzien kontsumoa, gurasoek zituzten kezak eta abar lantzeko. Arrakasta handia izan zuten saio horiek, dozenaka gurasok parte hartu baitzuten.

Hala ere, ikusi zen komenigarria zela zerbait egonkorragoa sortzea; hau da, garrantzitsutzat jo zen herrian bertan familia barruko egonezinak lantzeko figura bat sortzea. Izan ere, halako egoeretan, ikastetxeetara jo ohi dute sarri gurasoek, baina ikastetxeek ez dute gai guztiei heltzeko aukerarik izaten, besteak beste, eskolaz kanpoko gertaerek

eragindakoak izaten direlako askotan nerabeen egonezin eta gatazka horiek.

18 URTE ARTEKOENTZAT

Urte hasieran martxan jarriko den familientzako orientazio zerbitzua 18 urtez azpiko gazteei eta haien senide eta arduradunei egongo da bideratuta. Laguntza psikologikoa eta pedagogikoa emango dira, komunikazio arazoei, belaunaldi arteko arrakalei nahiz gurasoen eta seme-alaben arteko ulermen arazoei aurre egiteko.

Helburua izango da familia barruko gatazkak gainditzen eta kideen arteko harremanak hobetzen laguntzea. Horrez gain, emozioak kudeatzeko pautak eskainiko zaizkie gazteei, gatazka, zalantza nahiz krisi psikologikoko egoerei aurre egiten laguntzeko eta sintoma larriagoei edo konplexuagoei aurre hartzeko.

16 eta 18 urte artekoek familien orientazio zerbitzura beraiek bakarrik joateko aukera izango dute; handik beherakoek, guraso edo arduradunaren oniritzia beharko dute. Doakoa izango da zerbitzua, eta hitzordu bidez funtzionatuko du. Zerbitzua emango duen profesionalaren bulegoa Gaztelekuan egongo da (Emakumeen Txokotik ere sartu ahal izango da hara).

Iaz nerabeekin egin bezala, aurtun nerabezaroaren aurreko etapan dauden haurrekin egingo du lanketa sakonago bat Azpeitiko Udaleko Gazteria Sailak, hau da, 9-12 urte inguruko haurrekin.



Eraberrituta dator sexu, genero eta bikote aholkularitza zerbitzua

2012tik eskaintzen du Azpeitiko Emakumeen Txokoak hezkuntza eta sexualitate aholkularitza zerbitzua. Hainbat berrikuntza izan ditu ikasturte honetan, eta Lardaxka izenarekin hasi da sexu, genero eta bikote aholkularitza ematen.

Herritarrei beren sexualitateaz hausnartzeko eta kontsultak egiteko gune bat eskaintzea da Lardaxka zerbitzuaren helburua. “Izan ere, oraindik tabu asko daude identitate sexualaren, desiren orientazioaren eta bikote arteko problematiken inguruan”, esan zuen Miren Arrieta Parekidetasun batzordeburuak zerbitzuaren aurkezpenean.

Jendarteak markatutako sexu eta genero identitate zurrunen aurrean senti daitezkeen jakin-min eta deserosotasunei aurre egiten lagundu nahi du, bai eta genero estereotipoetan oinarritutako harremanak gainditzen ere. Ainhua Aira sexologian eta genero gaietan adituak gidatuko du zerbitzua. Doakoa eta konfidentziala izango da.

Herriko eragile eta kolektiboekin ere egingo du lan, eta beste sail eta zerbitzuekin koordinatuta arituko da. Asteartetan eskainiko da zerbitzua, bi astean behin, Emakume Txokoan. Goiz eta arratsalde egongo da, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Edozein herritarrek izango du joateko aukera, banaka, bikotean zein taldean. Aurrez aurreko zerbitzua lehenesten den arren, telefono bidezko zerbitzua ere emango da. Aurretik eskatu beharko da hitzordua Emakume Txokoan edo 943 15 70 55 eta 688 751 000 telefonoetara deituta.

ZER LANDU DAITEKEEN ZERBITZUAN:

- Bikote eztabaidak
- Sarketarekin izan daitezkeen zailtasunak
- Praktika erotiko desberdinak eta ohiko errutinatik irteteko aukerak
- Seme-alabak edukitzeko prozesuan edo erditze ondorengoan erotismoari eusteko bideak
- Sexu identitateari dagozkion zalantzak
- Desiraren orientazioaren inguruko zalantzak
- Jeloskortasunak eta elkar ez ulertzeak sortutako gatazkak
- *Sexting*, pornografia eta sare sozialen bitarteko gertakarien inguruko zalantzak
- Gorputzaren ezagutza
- Bizitzako etapa desberdinetan ematen diren aldaketak eta gogo berriei eman beharreko erantzunak

AZPEITIKO LGTBI+ ERREALITATEAK

AZPEITIKO LGTBI+ PERTSONEN BIZITZAK HOBETZEKO PLANA

Azpeitiko Udalak eta Eiherak herriko LGTBI+ pertsonen beharrak erdigunera ekarriko dituen ekintza plan baten diseinua egiteko apustua egin du aurten eta, horretarako, herriko LGTBI+ pertsonen, kolektibo eta eragile feministen ikuspegia jasotzea ezinbestekoa da.

Zure bizipen, iritziz edo errealitatea elkarbanatu nahi baduzu, idatzi ondorengo helbideetara, oso lagungarria egingo zaigu! (anonimoa izango da)

623 30 71 59 | eihera@eihera.eus

www.azpeitia.eus